

2023/10/29 – 16:30

AZTERKETAREN KODEA: **COE11**

Especialidad: **ARGIBIDE ETA KONTROLERAKO AGENTEA**

Gehienezko denbora: 45 minutu

Galderak: 30.

MODELO / EREDUA:	D
------------------	----------

JARRAIBIDEAK:

- Ez ireki koadernotxo hau esan arte. Orain, jarraitu jarraibide hauek irakurtzen.
- Idatzi: NANA eta LETRA, eta bete laukitxoak irakurketa optikorako.
- Idatzi: 1. abizena, 2. abizena, IZENA eta DATA.
- "AZTERKETA" atalean, idatzi goiko aldean agertzen den azterketa-kodea. **Egin ezean proba baliogabetua izango da.**
- Adierazi zure erantzun-orrian egokitu zaizun azterketa-eredua.
- Gogoratu:
 - 30 galdera, 4 erantzun-aukera dituztenak.
 - Baliozko aukera bakarra. Bat baino gehiago badago, orokorra edo osatuena, enuntziatua "Hautatu enuntziatu FALTSUA" eskatzen da; kasu horretan, hiru egiazkoak izango dira eta ez dena markatu behar da, faltsua.
 - Zuzeneko puntuazioak: Asmatzea, 1,00 puntu, errorea, -0,33 puntu. Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak EZ dute penalizatzen.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ekitaldiko azken 5 minutuetan.
- Azterketa jasotzeko eskatu ahal izango da lehenengo 15 minutuak igarotakoan eta asistentzia identifikatzeko lanak amaitu ondoren.
- Eskatzen zaizunean, bereizi orri zuria eta erantzun-orriaren kopia horia. Zuria erakundeko langileei ematen zaie.
- Kopia horia eta jarraibide-orria bere esku geratuko dira.

Eskerrik asko zure laguntzagatik.

- 1. Demagun bertan behera geratu dela gizarte-etxe edo kirol-instalazio bateko jarduera jakin bat. Aldatu al daiteke beste batera bertan behera geratu den horretan izena eman duen pertsona bat, arrazoi horregatik?**
 - a) Ez. Ordaindutako zenbatekoaren % 100 itzuli behar zaio.
 - b) Bai, baina soilik plaza librerik badago eta zentro berean bada.
 - c) Bai, baldin eta plaza librerik badago.
 - d) Bai, baina soilik plaza librerik badgo eta prezio bera badute.

- 2. Material mota hauetatik, zein daude inbentarioaren kudeaketa arautzen duen IMT prozeduratik kanpo?**
 - a) Kirol-materiala.
 - b) Bulegoko materiala.
 - c) Argazkilaritzako materiala.
 - d) Eraikuntza-materiala.

- 3. Instalazioen edukierari dagokionez, aukera ezazu baieztapen okerra.**
 - a) Informazio- eta kontrol-agenteek, zentroetako zerbitzuetako beste arduradun batzuekin batera, ezarritako edukierak ez direla gainditzen zaindu behar dute.
 - b) Baimendutako edukiera gainditzen bada, instalazioa hustu egin beharko da.
 - c) Baimendutako edukiera gainditzen bada, eta egoera konpondu ezin bada, poliziari deitu beharko diote.
 - d) Zentro batzuetan edukiera automatikoki kontrolatzeko gailuak daude.

- 4. Denboraldiko erreserbetako asistentzia-kontrolari dagokionez, nork jaso behar ditu idatziz okupazioko denbora-unitateen eta bertaratuen kopuruaren datuak?**
 - a) Erreserba egin duen erakundeko arduradunek.
 - b) Informazio- eta kontrol-agenteek.
 - c) Gizarte-etxeetako administrariak.
 - d) Espazio erreserbatuaren ardura duten teknikariek.

- 5. Igerilekuetako sarrera-kontrol mekanizatuei (tornuak) buruzko baieztapen hauetatik, zein da okerra?**
 - a) Tornuetako txartel-giltzak zentroko profesionalek erabiltzeko dira, eta instalaziotik irten aurretik itzuli behar dituzte.
 - b) Txartel-giltzak desaktibatu eta berraktibatu egin daitezke.
 - c) Informazio- eta kontrol-agenteak arduratzen dira txartel-giltzak egiteaz.
 - d) Txartel-giltzak emateko izapidea ohiko giltzak balira bezala kudeatuko da.

- 6. Sistema hauen artean, zeintzuk balio dute denboraldiko izen-emateen zozketan eskabideak aurkezteko? (Aukera ezazu erantzun zuzenena)**
- a) Eskabideak Internet bidez aurkeztea.
 - b) Eskabideak aurrez aurre aurkeztea.
 - c) Eskabideak 010 telefonoaren bidez aurkeztea.
 - d) Erantzun guztiak zuzenak dira.
- 7. San Martineko eraikina irekitzeari eta ixteari buruzko zeregin hauetatik, zein ez dute egiten informazio- eta kontrol-agentee?**
- a) Suteen telefonogunea eta zaintza-kameren funtzionamendua eta pantailak egiaztatu.
 - b) Eraikina ireki eta alarma kendu.
 - c) Megafonia piztu.
 - d) Kanpoko ate lerragarriak ireki.
- 8. Aukera hauen artean, zein ez da informazio- eta kontrol-agentee egiten dituzten zereginetako bat?**
- a) Udal-telefonogunea zaintzea.
 - b) Galdutako objektuak enkantean jartzea.
 - c) Dokumentazioa eraikinen artean garraiatzea.
 - d) Arropa banatzea.
- 9. Herritarrei arreta emateko dekalogoaren arabera, nola jokatu behar ba informazio jakin batek zalantzak pizten badizkit?**
- a) Koordinazioaz arduratzen den pertsonarekin kontrastatuko dut.
 - b) Lankideren bati berak ere zalantzarik ba ote duen galdetuko diot, eta elkarrekin konponduko dugu.
 - c) Herritarrari kontu jakin horri buruz zalantzak ditudala jakinaraziko diot, eta hurrengo batean itzultzeko esango.
 - d) Zein udal-sailetan zalantza argitu dezakedan ikertuko dut, eta bertan galdetuko dut.
- 10. Herritarrek ba al dute beren datu pertsonalei buruzko informazioa eskatu eta doan eskuratzeko eskubiderik?**
- a) Ez, inoiz ez.
 - b) Ez, baina egin daiteke salbuespenik.
 - c) Bai, kasu guztietan, Legeak informazioa eskuratzeko ematen duen eskubidean oinarrituta.
 - d) Bai, baina Administrazioak nahi badu bakarrik.

11. Herritarrei arreta emateko dekalogoaren arabera, nola jokatu zenuke, baldin eta artatzen ari zaren herritarrak informazio jakin bat ematen badizu, eta zuk informazio hori okerra dela badakizu?

- a) Argi eta garbi esango diot oker dagoela.
- b) "Hori ez da horrela" eta antzeko moldeak baliatuko ditu, oker dagoela ohartu dadin.
- c) "Barkatu, baina informazio okerra duzula uste dut" eta antzeko moldeak baliatuko ditut.
- d) Erantzun guztiak okerrak dira.

12. Nola konekta daitezke gizarte-etxeetako erabiltzaileak wifi-vitoria-gasteiz sarera?

- a) Online bakarrik egin daiteke alta.
- b) Online eta Herritarrei Laguntzeko Bulegoetan egin daiteke alta.
- c) Erregistratu gabe sartu behar da sarera, konexio-prozesua hastean pantailan agertzen diren erabilera-terminoak onartuta.
- d) Gizarte-etxeetan ez da Wifi estaldurarik.

13. Nola egin daiteke matrikula haur-eskola batean?

- a) Herritarrei laguntzeko bulegoetan, aurretiko hitzordua eskatuta.
- b) Herritarrei laguntzeko bulegoetan, aurretiko hitzordua eskatuta, baina soilik Udalaren haur eskoletan matrikulatzeko.
- c) Internet bidez, HUT baliatuta.
- d) Edozein gizarte-etxe zein kirol-instalaziotako edozein bulegotan.

14. Auto-tramitazioko bulegoei dagokienez, zein da baieztapen okerra?

- a) Auto-tramitazioko bulegoetan udal-izapide jakin batzuk egin daitezke, modu autonomoan, itxaron gabe eta hitzordua eskatu beharrik gabe.
- b) Auto-tramitazioko bulegoetan jardueren ordainagiriak, zergak, isunak eta abar ordaindu daitezke, edozein banku-txartel baliatuta.
- c) Auto-tramitazioko 12 bulego daude hainbat gizarte-etxetan zein San Antonio eta San Martineko bulegoetan; erabiltzaile gisa alta eman behar da horiek baliatzeko.
- d) Auto-tramitazioko bulegoek Udalaren egoitza elektronikoan sartzeko aukera ematen dute.

15. Herritarren arretarako bulegoak dituzten gizarte-etxeetan egin daitezkeen izapide hauen artean, zein egin daiteke aurretiko hitzordurik gabe?

- a) Ordainagiriak txartel bidez ordaintzea.
- b) LEP batean parte hartzeko eskaera aurkeztea.
- c) HUT eskatzea.
- d) Salmenta Ibiltariko postu baten eskabidea aurkeztea.

16. Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 16. artikulua arabera, nori dagokio lan-arriskuak ebaluatzeko erantzukizuna?

- a) Enpresaburuari.
- b) Langileari.
- c) Sindikatuei.
- d) Administrazio publikoari.

17. Zer xedatzen du Lan-arriskuen Prebentzioari buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua?

- a) Enpresari dagokiola langileei osasun-azterketak egiteko betebeharra.
- b) Enpresari dagokiola prebentzio-zerbitzu propio bat izateko betebeharra.
- c) Enpresari dagokiola lan-arriskuen aldizkako ebaluazioak egiteko betebeharra.
- d) Enpresari dagokiola aplikatu beharreko larrialdi-neurriei buruzko informazioa bere lantokian diharduten beste enpresaburu batzuei helaraztekoa erantzukizuna.

18. Honako printzipio hauen artean, adierazi zein dagokion funtzio publikoak betetzen dituzten langileei eska dakiekeen JOKABIDE PRINTZIBIO bat.

- a) Zerbitzuak ematen dituzten administrazioarekin, nagusiekin, lankideekin, menpekoekin eta herritarrekin leialtasun eta fede onaren printzipioetara egokitzea beren jarduna.
- b) Dagozkien edo agintzen zaizkien zereginak arduraz betetzea, eta, hala badagokio, beren eskumeneko prozedurak edo espedienteak epearen barruan ebatzea.
- c) Nagusien jarraibide eta agindu profesionalak betetzea, ordenamendu juridikoa nabarmen hausten dutenean izan ezik; kasu horretan, berehala jakinaraziko dizkiete dagozkien ikuskapen-organoei.
- d) Eraginkortasun-, ekonomia- eta efizientzia-printzipioen arabera jardutea, eta erakundearen interes orokorra eta helburuak betetzen direla zaintzea.

19. Honako hauek dira enplegu publikora iristeko printzipio konstituzionalak:

- a) Berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioak.
- b) Hautaketa-organoetako kideen inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak.
- c) Hautaketa-organoen jardunaren independentzia eta diskrezionalitate teknikoa, bai eta hautaketa-prozesuen edukiaren eta garatu beharreko eginkizunen edo atazen arteko egokitasuna ere.
- d) Aurreko aukera guztiak enplegu publikoa lortzeko konstituzio-printzipioak dira

20. Bitarteko langileei dagokienez, adierazi enuntziatu FALTSUA:

- a) Bitarteko funtzionarioak dira, premiaz eta berariaz justifikatutako arrazoiak direla medio, karrerako funtzionarioen berezko eginkizunak betetzeko aldi baterako izendatzen direnak.
- b) Bitarteko funtzionarioak hautatzeko prozedurak publikoak izango dira; nolana ere, berdintasun-, merezimendu-, gaitasun-, publizitate- eta bizkortasun-printzipioen arabera arautuko dira.
- c) Hautaketa-prozedura horietatik eratorritako izendapenak karrerako funtzionario-izaera aitortzea ekarriko du, dagokion egonkortze-prozesuaren ondoren.
- d) Lanpostua karrerako funtzionarioek betetzen badute, lege ezarritako edozein prozeduraren bidez, administrazioak ofizioz formalizatu beharko du bitartekotasunharremana, inolako konpentsazio-eskubiderik gabe.

21. Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 14. artikulua arabera, taldean baliatzen ez diren zein eskubide indibidual dituzte enplegatu publikoek?

- a) Lanbide-karreraren aurrera egiteko eskubidea eta datu pertsonalak babesteko eskubidea.
- b) Negoziazio kolektiboan jarduteko eskubidea eta lan-baldintzak ezartzerakoan parte hartzekoa.
- c) Biltzeko eskubidea, Estatutu honen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- d) Negoziazio kolektiborako eskubidea eta greba egiteko eskubidea.

22. Zein da Gasteizko Genero Berdintasunerako V. Planaren helburu nagusia?

- a) Emakumeen diskriminazio positiboa sustatzea.
- b) Neurri-multzo integratu eta sistematikoa bat zehazteko plan gidaria izatea, Gasteizko herritarrek erdintasuneko eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan baliatu ahal izan dezaten hirirako duten eskubidea.
- c) Udal-ekintza publikoa orientatzea, bultzatzen diren politikek berdintasunean eragin positiboa izan dezaten.
- d) Berdintasun-politiken subjektu politikoa arau heteronormatiboak zapaldutako beste pertsona batzuetara zabaltzea.

23. Zein da Gasteizko Udaleko ordezkari politiko goreneko organoa?

- a) Alkatea.
- b) Udal kontzejua.
- c) Udalbatzaren Osoko Bilkura.
- d) Tokiko Gobernu Batzarra.

24. Zer da Kirol Txartela Mugiment?

- a) Tornuen bidez kirol-instalazioetara sartzeko balio duen txartela.
- b) Udalaren kirol-instalazioetako abonatupei beste udalerrri batzuetako kirol-instalazioetan sartzeko aukera ematen dien txartela.
- c) Udalaren kirol-instalazioetan abonatu gisa identifikatzeko balio duen txartel birtuala.
- d) Gasteizko kirol-instalazio guztietara sartzeko beste udalerrri batzuetan bizi diren pertsonen lor dezaketen txartela.

25. Zein da ekitaldi-gela erabiltzeko gehieneko denbora saio bakoitzeko?

- a) Ordubete.
- b) Ordu eta erdi.
- c) Bi ordu.
- d) Gelan dagoen pertsona-kopuruaren arabera.

26. Non dago Kirol Zerbitzua?

- a) Mendizabalean.
- b) Senda ibilbidean.
- c) Lasarteko atean.
- d) Amadeo García de Salazar plazan.

27. Zein kirol-instalaziotan bada xake-gelarik?

- a) Astronomoen kaleko pilotalekuan.
- b) Landazuri kiroldegian.
- c) Beti Jai pilotalekuetan.
- d) San Martinen..

28. Komunikabideek ba al dute gizarte-etxeetan eta kirol-instalazioetan sartzetik?

- a) Bai, beti.
- b) Bai, baina alde zuzeneko baimena badute bakarrik.
- c) Bai, baldin eta ikuskizun publiko eta kirol-lehiaketa programatuei buruzko informazioa emateko bada.
- d) Ez, inoiz ez.

29. Demagun pertsona batek izena eman duela jarduera jakin batean parte hartzeko, baina ezin izango duela, eta ordaindutako kopurua itzultzeko eskatzen duela. Baieztapen hauetatik zein da okerra?

- a) Arrazoa justifikatu beharko du.
- b) Jarduera hasi baino lehen eskatu beharko du dirua itzultzeko.
- c) Ordaindutako zenbatekoaren % 15 atxikiko zaio, kudeaketa-gastuengatik.
- d) "Dirua itzultzeko eskaera" inprimakia bete beharko du.

30. Nola jokatu behar duzu igerilekurako sarrera bat saldu ezin baduzu, aplikazio informatikoak huts egin duelako?

- a) Igerilekua duen beste instalazio batera bideratuko dut.
- b) Barkamena eskatu ondoren, ez diot sartzen utziko.
- c) Kobratu gabe sartzen utziko diot, auzia ez delako erabiltzailearen errua.
- d) Sarrera kobratuko diot edonola ere, eta taloitegiko taloi bat emango diot.